LARRAULGO UDALA
(GIPUZKOA)

2011ko URTARRILAREN 13an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2011ko urtarrilaren 13an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 18.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Gotzon Jauregi Sarasola
Karlos Irazu Muñoa
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:**
   - **2010eko abenduaren 2an egindako ohiko bilkura**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Larraulgo Herri bide batean burnizko pasabide bat egiteko obra baimena. R.A.E.**
4. **Altuna y Uria S.A.k eginiko abal itzulketa eskaeraren onespena, hala badagokio.**
5. **Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2010eko 3. Eta 4. Hiruhilabeteko kuotaren ordainketa, hala bada.**
6. **2010 urteko Larraulgo Ekomuseoaren memoriaren aurkezpena eta 2011 urterako diru-laguntza eskaera, hala bada.**
7. **Erniozaleak kultur elkarteak aurkezturiko kontuen kitapenaren berri ematea, hala bada.**
8. **Fakturak eta ordainketak.**
9. **Beste batzuk.**
10. **Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...

LARRAULGO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA
ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- 2010 urteko abenduaren 2ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

30/2010 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 3koa, Justizia eta Herri Administrazio Sailak On line erregistro zibila programa Euskal Autonomia Erkidegoko bake epaitegietan ezartzeko xedez ekipamendu informatikoa eskuratzeko helburuz udalen aldeko laguntzen deialdiaren barne, dirulaguntza eskaera egitea, ebazten duena.

31/2010 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 3koa, Udal Aholkulari teknikoari Hirigintzako XXXII ikastaroa (Donostian) III modulua egiteko baimena ematea, "Ordenación y planeamiento urbanistico" delakoa, ebazten duena.

32/2010 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 21ekoa, M.C.G. andreari hilabeteko luzapena ematea, Sorozelai 41 eskubian egindako ezkutuko obrak legeztatzeko, proiektu teknikoa aurkezteko, ebazten duena.

33/2010 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 21koa, Aiztondo Bailarako Etxerat Elkarteak aurkezten duen mozioa onestea, ebazten duena.

34/2010 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 27koa, Club de Caza Usarrabiri, Antton Amonarriz Kultur gunea euren helbide sozial modura erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

01/2011 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 10ekoa, I.E.A. jaunak eginiko eskaera onestea, ebazten duena.

02/2011 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 11koa, Larraulgo Udaleko ekipo informatikoen mantenu lanak ZITU INFORMATIKA enpresari esleitzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA
LARRAULGO HERRI BIDE BATEAN BURNIZKO PASABIDE BAT EGITEKO OBRA BAIMENA.R.A.E.

Ikusirik R.A.E. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Herri bide batean burnizko pasabide bat egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, eta batzarkide artean kontrako eritziak egonik, gaia bozkatu egiten dute, ondorengoa delarik emaitza:
-Kontrako botuak: 4 (Mujika, Jauregi, Barandiaran eta Mendiola, Alkate eta zinegotziak).
-Aldeko botuak: 1 (Irazu zinegotzia)
-Abstentzioak: 0

Bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek gehiengoaz, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: R.A.E. jaunak eginiko eskaera ukatu.

BIGARRENA: Erabaki honen berri R.A.E. jaunari ematea.

LAUGARREN PUNTUA
ALTUNA Y URIA S.A.k EGINIKO ABAL ITZULKETA ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Altuna y Uria S.A.k eginiko eskaera, non azaltzen duen 1998 ko irailaren 18an 3.547,67 eurotako abala jarri zuela "Acondicionamiento de diversos caminos vecinales" obra egiteko, obra amaitu denez, jarritako abala bueltatzeko eskaera egiten duelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Construcciones Altuna y Uria, S.A. baltzuari Larraulen 1998 urtean "Acondicionamiento de diversos caminos vecinales" obra exekutatzeko jarritako behin betiko bermea (ACC, Seguros y Reaseguros de Caución y Crédito, S.A-ko 42.015 zenbakia duen 3.547,67 eurotako abala, 590.283 pezetakoa) itzultzea.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2010 eko 3. ETA 4. HIRUHILABETEKO KUOTAREN ORDAINKETA, HALA BADA

Ikusirik 2010eko abenduaren 30ean Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2010 ekitaldiko 3 eta 4. Hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 6.000,00 eurokoa dela adierazten den.

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 6.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2010 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- 6.000,00 eurotako gastua onartzea.

SEIGARREN PUNTUA
2010 URTEKO LARRAULGO EKOMUSEOAREN MEMORIAREN AURKEZPENA ETA 2011 URTERAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik DINA 7 Elkarteak aurkeztu duela 2010 urteari dagokion Larraulgo Ekomuseoaren memoria.

Ikusirik DINA 7 Elkarteak eginiko 2011 urterako diru-laguntza eskaera euren jarduena aurrera eramateko.

Ikusirik DINA 7 Elkarteak 2010 urtean Larrauleko ekomuseo jarduna aurrera eramateko Larraulgo Udalarekin hitzarmen bat sinatu zuela, hitzarmenaren iraupena urte batekoa zelarik.

Ikusirik DINA 7 Elkarteak eta Larraulgo Udalak interesa dutela, DINA 7 Elkarteak Larraulgo Ekomuseoaren kudeaketa aurrera eramateko 2011 urtean, ondorioz, aurreko hitzarmena berritu behar delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- DINA 7 Elkarteak aurkezturiko memoriari buruz, aipaturiko elkarteari eskatzea aurkeztutako memoria osatu behar duela, hau da, Ekomuseo proiektuaren erabilera datuak (urteko bisiten datuak, zenbat jende kopuru, zenbat talde etb.) .

BIGARRENGOA.- DINA 7 Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaerari buruz, aipaturiko elkarteari eskatzea eginiko diru-laguntza eskaera zehazteko, hau da, eskatutako diru-laguntza ze jarduera burutzeko erabiliko den.

HIRUGARRENA: Larraulgo Museo Etnografikoaren kudeaketa DINA 7 Elkarteari esleitzea, horretarako beharrezkoa den hitzarmena onesten delarik 2011 urterako. Alkate-Lehendakaria ahalmendu aipaturiko hitzarmena sinatzeko.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri DINA 7 Elkarteari ematea.

<u>ZAZPIGARREN *PUNTUA*</u>
ERNIOZALEAK KULTUR ELKARTEAK AURKEZTURIKO KONTUEN KITAPENAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Erniozaleak kultur Elkarteak aurkezturiko, 2010ean egindako mendi ibilaldiaren, diru-kontuen kitapena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Erniozaleak Kultur Elkarteak aurkezturiko, 2010 urtean egindako mendi ibilaldiaren, diru-kontuen kitapena onestea. Ondorengoa izanik:

-Sarrerak: 8.523,02€
-Gastuak: 6.064,35€
-Soberan gelditzen dena hurrengo ibilaldietarako: 2.458,67€

<u>ZORTZIGARREN PUNTUA</u>
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	403,62
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	3.604,11
EBA ERKIZIA BRION	416,26
KIROLZER	123,90
KIROLZER	123,90
GARRA, S.L.	63,72

GAZTEZULO	18,00
BELARMENDI	188,21
KOPIDIN	141,22
IZFE	528,64
REPSOL	203,33
REPSOL	708,17
IBERDROLA	28,11
IBERDROLA	194,23
IBERDROLA	124,34
IBERDROLA	21,87
IBERDROLA	60,50
IBERDROLA	200,87
IBERDROLA	132,56
IBERDROLA	326,42
IBERDROLA	160,28
IBERDROLA	144,93
MOVISTAR	104,66
MOVISTAR	17,00
MOVISTAR	20,47
MOVISTAR	90,51
EUSKALTEL	226,59
BERRI LANTEGIA	56,36
GIPUZKOAKO URAK	5.521,91
FERRETERIA BARBE	38,74
VICENTE ERROTULAZIOA	169,92
FONGUI, S.A.	46,93
ZITU INFORMATIKA	1.439,60

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **15.649,88** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

9.1.LARRAULGO HERRI BIDE BATEAN BURNIZKO PASABIDE BAT EGITEKO OBRA BAIMENA, J.T.O.

Ikusirik J.T.O. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Herri bide batean burnizko pasabide bat egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, batzarkide artean kontrako iritziak dituztenez, gaia bozkatu egiten dute, ondorengoa delarik emaitza:
-Kontrako botuak: 3 (Mujika, Jauregi, Barandiaran Alkate eta zinegotziak).
-Aldeko botuak: 2 (Irazu eta Mendiola zinegotziak)
-Abstentzioak: 0

Bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek gehiengoaz, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.T.O. jaunak eginiko eskaera ukatu.

BIGARRENA: Erabaki honen berri J.T.O. jaunari ematea.

9.2.LARROLA NEKAZARITZA USTIATEGIAREN INGURUAN EGINDAKO HOBIA KENTZEKO ERREKERIMENDUARI BURUZKO NEURRIAK.

Ikusirik J.T.O. jaunari jakinarazi zitzaiola 2010eko azaroaren 4an egindako Udalbatzaren errekerimendua, non hilabeteko epea ematen zitzaion Larrola nekazaritza ustiategiaren inguruan eginiko hobia kentzeko eta inguruko etxeetatik gutxienez 50 metrotara kokatu beharko zuela eta ondoko lursailaren mugetatik 8 metrotara gutxieneko distantzia mantendu beharko zuela. Ohartaraziz, errekerimendu hau beteko ez balu, Udalk, aipaturiko hobia kenduko zuela eta honen kostua J.T.O. jaunak ordaindu beharko zuela.

Ikusirik J.T.O. jaunari goian aipaturiko erabakia 2010eko azaroaren 19an jakinarazi zitzaiola.

Ikusirik J.T.O. jaunak hilabeteko epean ez duela ezer egin.

Ikusirik J.T.O. jaunak Udalbatza honetara bertaraturik adierazi duela hobia erabiltezina bihurtzeko, igeltsero bati esan diola, baina aipaturiko igeltseroa oraindik ez dela lan hori egitera bertaratu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.T.O. jaunari jakinarazi aste beteko epea izango duela 2010eko azaroaren 4an Udalbatzak hartutako erabakia betetzeko luzapena eskatzeko.

BIGARRENA: J.T.O. jaunari jakinarazi 2001ko urtarrilaren 31arteko epea izango duela, Larraulgo Udalean azaltzeko hobiarekin zer egin nahi duen, nola egin behar duen eta ze fetxatan egin behar duen esateko.

HIRUGARRENA: J.T.O. jaunari erabaki hauen berri ematea.

9.3. J.J.S. JAUNAK LARROLA NEKAZARITZA USTIATEGIAREN INGURUAN EGINDAKO OBRARI BURUZKO KEXAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik J.J.S. jaunak Larrola nekazaritza ustiategiaren inguruan egindako obrari buruzko kexa, ondorengoa diolarik:

...ZERA DIO:

Larraulgo J.T. Larrola nekazaritza-ustiategia inguruan hormigoizko zola edo esplanada bat egiteko baimenaren eskaerari buruz, 2009-6-4an Larraulgo Udalak ospatutako Ohiko Udalbatzarrean onartutako akordioak, besteak beste honela dio:

***Larraulgo 69. Artikuluak** abeltzaintzako ustiategien instalazio eta eraikuntza osagarriak arautzen ditu. Honen arabera hobia, inguruko etxeetatik gutxienez 50 metrotara kokatu behar da, ondoko lursailaren mugetatik 8 metrotako gutxieneko distantzia mantendu behar delarik*

-Kontuan izanik J.J. 2009 irailaren 24an aurkeztutako obrari buruzko kexa.
-Kontuan izanik 2009ko irailaren 29ko ikuskaritza teknikoaren neurketa eta azterketak.
-Kontuan izanik Udal Aholkulari Juridikoak urriaren 13an eginiko txostena J.T.-ri igorria.
-Kontuan izanik Udal horrek 2009ko abenduaren 3an egindako Udalbatzarrean beste batzuen artean hartu zuen erabakia.
-Kontuan izanik J.J.S. –ri erabaki honen berri jakinarazteko Larraulgo Udaleko 2010eko uztailaren 27 irteera data daraman idatziak.

HONELA DIO:

Idatzi honen bidez zuregana zuzentzen naiz, J.T. jaunak Larrola nekazaritza-ustiategian egindako lanen inguruan, zuk eskatutako informazioari buruz egindako idatziari erantzuteko.

2009ko abenduaren 3an egindako Udalbatzarrean, beste batzuen artean ondorengo erabakia hartu zuen:

HIRUGARREN PUNTUA

J.T.O. Jaunak Larrola nekazaritza ustiategiaren inguruan egindako obren legeztatze eskaera, hala bada.

…/…

Lehena: J. T.O. jaunak Larrola ustiategiaren zabalgunean bota duen hormigoizko zola berriak, hau da, 1426m2ko azalerakoari, legeztatze baimena ematea.
Bigarrena: J.T.O. jaunari jakinarazi, egindako hobia, inguruko etxeetatik gutxienez 50 metrotara beharko duela, beraz lekuz aldatu beharko duela. Horretarako 9 hilabeteko epea izango du, jakinarazpen hau jasotzen duen momentutik hasita. (Jakinarazpena 2010 eko urtarrilaren 12an jaso zuen).
Hirugarrena: Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.
Beraz aipaturiko erabakiaren arabera, 9 hilabeteko epea izango du J.T.O. jaunak egindako hobia lekuz aldatzeko eta arauetako 69 artikuluan dagoena betetzeko. Epea 2010eko urriaren 12an bukatzen delarik.
Guzti hau ikusirik, aipatutako epea igaro eta gero J.T. jaunak ez badu hobia lekuz aldatzen, Larraulgo udalak dagozkion neurriak hartuko ditu.

KONTUTAN HARTURIK:

J.T.O jaunari Larrola nekazaritza-ustiategian egindako hobia aldatzeko ezarritako epea amaitu dela, eta oraindik hobia ez duela aldatu kontutan izanik.

ZERA DIO:

-Zer neurri hartu ditu Larraulgo Udalak, J.T.O. jaunari ezarritako bete beharrekoak bete ditzan?

-Non Kokatuko da egin beharrekoa duen hobi berria?

-Hobi berriaren kokagune zehatza eta izango duen kapazitatearen dokumentazioa ere jaso nahi lituzke.

-Lehen egindako hobia Udal horrek baimena ematerakoan ezarritako gutxieneko distantziak betetzen ez dituenez ezabatua edo suntsitua izan dadin Larraulgo Udalak hartu beharreko neurriak hartu ditzala eskatzen du, zeren eta tapatuta bakarrik uzten bada arriskua dago berriro erabilgarri izateko moduan bihurtzea."

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa erantzutea

ERABAKITZEN DU:

LEHENA:J.J. jaunari jakinarazi, J.T.O. jaunari aste beteko epea ematen zaiola, egin behar duenaren luzapena eskatzeko.

BIGARRENA: J.J. jaunari jakinarazi, J.T.O. jaunari urtarrilaren bukaerarteko epea uzten zaiola, egin behar duena azaltzeko, hau da, zer, nola eta noiz egin behar duen esateko.

HIRUGARRENA: J.J. jaunari jakinarazi, hurrengo Udalbatzan, J.T.O. jaunak aurkezten duen dokumentazioa aztertu ondoren, Udalbatzak hartzen duen erabakiaren berri emango zaiola.

9.4. LARRAULGO OLATZA BASERRIA ERABERRITZEKO HIRIGINTZA KONTSULTA

Ikusirik I.S.U. jaunak eginiko hirigintza kontsulta Olatza baserria eraberritzeko aukerari buruzkoa.

Ikusirik Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion Arkitektoak eginiko txostenean dioena:

"*LARRAULGO OLATZA BASERRIA ERABERRITZEKO HIRIGINTZA KONTSULTARI TXOSTEN TEKNIKOA*

I.S.U. jaunak, Olatza baserria erosteko eta eraberritzeko eman behar dituen pausoak jakiteko, hirigintza kontsulta bat eskatzen du, Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:
Olatza baserria, Larraulgo lur ez-hiritargarriaren barruan dago. Larraulgo araudiaren "D" dokumentua eta Gipuzkoako Balizko Arkeologia Guneen izendapen zerrendaren arabera, A motako babes esparru bat du (pareta barruko eremua) eta 7/1990 Ondarearen legeko 45.5º artikuluak esaten duena bete beharko du.

45.5.- En los casos en que la actuación arqueológica se haga necesaria como consecuencia de cualquier tipo de obras que afecten a zonas o bienes arqueológicos calificados y a los inventariados, el promotor deberá presentar el correspondiente proyecto arqueológico ante la Diputación Foral correspondiente para su aprobación previa a la ejecución de aquéllas. Su financiación correrá a cargo del titular de las actuaciones afectantes en el caso de que se trate de entidades de derecho público. En caso contrario, la Diputación Foral correspondiente participará en la asunción de los gastos mediante la concesión de ayudas en los términos que se fijen reglamentariamente, a no ser que ejecute directamente el proyecto que estime necesario.
En todo caso, la Diputación Foral estará obligada a satisfacer el 50 por 100 del monto total que suponga la actuación arqueológica.

2/2006 Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren legearen 30º artikuluak Baserrien eraberritzeak arautzen ditu.

Artículo 30. Reconstrucción de caseríos y su autorización
1. Sólo será autorizable la reconstrucción de los caseríos que mantengan una estructura edificada que permita identificarlos como tales. En ningún caso podrán ser objeto de reconstrucción los restos de muros de edificaciones que no alcancen la cumbrera de las primitivas y, en general, cuantos restos no permitan conocer la planta general del inmueble original ni permitan reconocer su volumetría original.
2. No obstante, podrá autorizarse la reconstrucción de los caseríos y edificaciones residenciales en suelo no urbanizable que hubieran resultado inservibles por caso fortuito o fuerza mayor debidamente acreditada, o cuando hubieran sido demolidos por causa de expropiación forzosa debida a la implantación de sistemas generales. La reconstrucción habrá de instarse por el solicitante a la administración municipal dentro del año siguiente a la causa que provocó que quedara inservible o, en su caso, desde la efectiva ocupación expropiatoria. En este último supuesto expropiatorio, la reconstrucción podrá realizarse en suelo no urbanizable que no sea de especial protección.
3. La obra de reconstrucción en todo caso deberá respetar, como máxima, la composición volumétrica del inmueble original.
4. El otorgamiento de licencia para las obras de reconstrucción de caseríos requerirá:
a) Sometimiento del proyecto a información pública por plazo mínimo de veinte días.
b) En los supuestos de reconstrucción por causa de caso fortuito, fuerza mayor u ocupación expropiatoria, se recabarán los informes pertinentes de los organismos o instituciones que hubieran intervenido o tuvieran conocimiento de los hechos y circunstancias que hacen posible autorizar la reconstrucción.
5. En ningún caso se podrá considerar como rehabilitación de caseríos la reforma o rehabilitación para uso residencial de edificaciones situadas en suelo no urbanizable que no hubieran sido legalmente destinadas a usos residenciales con anterioridad.
Dichas obras se considerarán como nueva edificación destinada a vivienda, y quedarán sometidas al régimen jurídico que para las mismas se establece en esta ley.

Olatza baserriak bere egitura eraikia gordetzen du, gaur egun gailurra mantentzen delarik.
Ekainak 3-ko 105/2008 dekretuaren 9º artikuluak ere, baserriak eraberritzeko baimenen erregimena zehazten du.

Artículo 9.– Caseríos. Definición y régimen autorización de reconstrucción.
1.– A los efectos de lo dispuesto en el régimen del suelo no urbanizable en los artículos 29.1 y 30 la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, se entenderá por caserío los edificios que cumplan acumulativamente todas las siguientes condiciones:
a) Constituirse como tipo edificatorio aislado, con uso predominante de vivienda.
b) Disponer de por lo menos una vivienda ya existente, todo ello según lo dispuesto en el Registro de la Propiedad en cada uno de ellos.
c) Disponer de licencia de primera ocupación o de documento que deje constancia de modo fehaciente de su efectiva ocupación residencial con anterioridad al 1de enero de 1950.
d) Reunir aquellas características adicionales que establezca el Ayuntamiento en su planeamiento urbanístico o en la correspondiente ordenanza municipal.
2.– Sólo será autorizable la reconstrucción de los caseríos que mantengan una estructura edificada que permita identificarlos como tales. En ningún caso podrán ser objeto de reconstrucción los restos de muros de edificaciones que no alcancen a definir la posición original de la cumbrera de las primitivas y, en general, cuantos restos no permitan conocer la planta general del inmueble original ni permitan reconocer su volumetría original.

Eraikita dauden baserrietan bi jarduera sistema daude, baserria eraberritzea edo ordezkatzea, baina bietan ere baserriaren hasierako orubea ezin daiteke aldatu. Larraulen indarrean dauden Arau Subsidiarioen 66 eta 67º artikuluek honela diote:

Artículo 66.- Reforma y rehabilitación de los caseríos existentes.
La reforma y rehabilitación de caseríos será la opción utilizada preferentemente en todos aquellos casos en los que haya una construcción rural ya existente.
1.- Como criterio general, en cualquier obra de reforma y rehabilitación de los caseríos se deberán respetar las características fundamentales de los mismos.
2.- Obras que afecten a los elementos exteriores.
Se realizarán manteniendo el aspecto de terminación exterior del caserío primitivo en la composición de volúmenes, cubiertas, vuelos, huecos de fachada, etc.
Se mantendrán todos los elementos arquitectónicos o artísticos como escudos, dinteles, frentes de fachada, etc. de especial valor que el edificio pueda tener.
Los materiales exteriores respetarán en todos los casos lo que dispone el art.49 de las presentes ordenanzas pudiendo sustituir los elementos exteriores como carpintería, cubierta, etc. pero manteniendo en todos los casos el aspecto general y los elementos singulares del caserío primitivo.
3.-La rehabilitación integral del caserío conllevará la desaparición de txabolas, anejos y tejabanas de forma que mejoren tanto la funcionalidad del edificio en relación con la explotación agraria como su aspecto exterior.
4.-Número máximo de viviendas.
El número máximo de viviendas que podrá albergar el caserío rehabilitado será de cuatro, y una vez construidas se deberán inscribir en el Registro de la Propiedad como vinculadas a la correspondiente explotación agrícola e inseparable de la misma, ajustándose a los siguientes criterios:
-. Número máximo de viviendas permitidas: 4
-. Superficie construida mínima por cada vivienda: 150 m2 (s)
No se computarán a estos efectos otras viviendas existentes en el mismo edificio no adscritas registralmente a la explotación.
5.-Ampliaciones singulares del caserío primitivo.
Se podrán realizar obras de ampliación del caserío siempre y cuando los mismos queden adosados a él y no desdigan de la composición del edificio primitivo. La ocupación en planta de la ampliación más la superficie existente no podrá ser superior a 300 m2(s).
Artículo 67. Sustitución de caseríos existentes.
1.-En el caso de la existencia de un edificio, que por razones justificadas no reúna las condiciones apropiadas para su reforma o rehabilitación, existe la posibilidad de su sustitución por un edificio de nueva construcción que se ubicará en el mismo lugar que el anterior.
2.-La superficie en planta así como el volumen máximos del nuevo edificio se corresponderán con los existentes con anterioridad
3.-En el caso en que el edificio a sustituir no permita definir alguna de estas variables (construcciones en ruinas) serán de aplicación las condiciones geométricas impuestas a los caseríos de nueva planta.
4.-El número máximo de viviendas se determinará por los criterios establecidos en el artículo 66.4 del documento.
5.-El resto de condicionantes tales como las instalaciones y edificios complementarios depuración y vertido de aguas residuales, condiciones de habitabilidad, estética y de

urbanización serán las mismas que las recogidas en el apartado 3.3.1 sobre disposiciones con carácter general en el Suelo No Urbanizable, así como las definidas para el caso de rehabilitación y reforma de caseríos existentes (art.66)
Partzelazioari dagokionez eta 54º artikuluaren arabera, eraikita dauden eraikuntzetan kokatuak dauden egoitzek 10.000m2-tako gutxieneko lurzatia izango dute. 55º artikuluak ere, lur ez hiritargarrian egin daitezkeen partzelazioak finkatzen ditu.
Artículo 55.- Parcelaciones en el Suelo No Urbanizable.
La división o segregación de una finca rústica solo será válida cuando no dé lugar a parcelas de extensión inferior a la unidad mínima de cultivo, que en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, según establece el art.7 del Decreto 168/1997, de 8 de julio, es de 1 Ha (10.000 m2).
...
-. En edificaciones ya existentes y en la hipótesis de edificios autónomos residenciales (art.74) se permitirá la segregación de una parcela mínima de 10.000 m2 (1 Ha) vinculada registralmente al edificio señalado, y siempre que el resto de la superficie de la parcela quede adscrita a otra explotación agraria con más de 1 Ha., o cumpla las condiciones de parcela mínima.

Beraz;
Olatza Baserriak, ekainak 3-ko 105/2008 dekretua bete beharko du etxebizitzatzat hartzeko.
Etxebizitzari loturiko gutxieneko lursaila 10.000m2 koa izango da.
Eraberritze lanak hasi aurretik proiektu arkeologiko bat aurkeztu beharko da Foru Aldundian.
Eraikinak gaur egun dituen elementu esanguratsuenak mantendu beharko ditu (arkuak, harlanduzko izkinak eta zubia) eta bizilagunaren zatia ez da arriskuan jarriko.
Udal baimena lortzeko teknikari eskudun batek zinatutako proiektuaren bisatutako 2 ale aurkeztuko dira udaletxean.
Ekainak 20-ko 2/2006 Lurzoruaren eta hirigintzaren legearen 30.4.a. artikulua jarraituz, proiektua 20 eguneko jendaurreko informazio epe bat izango du buletinean iragarkia jarri den egunetik."

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.S.U. jaunari Eba Erkizi Brion Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostena jakinarazi, bertan, Olatza baserria eraberritzeko baldintzak finkatzen direlarik.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesdunari ematea.

9.5.M.S. eta O.U. EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA.

Ikusirik M.S. eta O.U. andreak eginiko diru-laguntza eskaera, non azaltzen duten 2010-2011 ikasturtean Larraulgo Balioanitza aretoan psikomotrizitate saioak egiteko aukera sortu dela, aipaturiko espazioa materialez hornitzea beharrezkoa dela azaltzen dute. Horretarako behar dituzten materialen zerrenda eta hauen aurrekontu bat aurkezten dute.

Ikusirik Larraulgo Kultur etxeko balioanitza aretoa materialez hornitzeak Larraulgo eskolan burutzen diren psikomotrizitate saioetarako balioa izango dutela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: M.S. eta O.U. andreek eginiko diru-laguntza eskaera onestea, bere zenbatekoa 350,00.-euro direlarik.

BIGARRENA: M.S. eta O.U. andreei jakinaraztea, edozein erosketa burutu baino lehen Udaletxearekin adostu beharko dutela materialak egokiak diren ala ez Kultur etxeko balioanitza aretoan jartzeko.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri M.S. eta O.U. andreei ematea.

HAMARGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira azaltzen.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 21:15 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA